



15618. ETOLOGIA

Irakasleak: *Eduardo Fano* (31 Taldea, euskaraz; 02 Taldea, gazteleraz)
Jose Ramon Sanchez (01 Taldea, gazteleraz)
Aitziber Azurmendi (31 Taldea, euskaraz; 02 Taldea, gazteleraz)
Jaione Cardas (01 Taldea, gazteleraz)

Kodea: 15618
Enborrezko irakasgaia
Lehenengo maila
Bigarren lauhilekoa
Kredituak guztira: 4,5 Teoriakoak: 3 Praktikoak: 1,5

HELBURU OROKORRAK

Irakasgai honen helburua ikasleek, animalien jokaeraren ikasketaren alorreko gai garrantzitsuenen ikuspegi orokor bat jaso dezaten litzateke. Hain zuzen ere, ikuspegi hori Etologiak jokaeraren ikasketan darabilzkien hurbilketa maila ezberdinetan, hots azterketa mailatan, jaso dezaten nahi genuke, beti ere, jokaeren ikasketarako hurbilketa honetan ikuspegi eboluzionistak duen garrantzia eta egiten duen ekarpena kontutan izanik. Ikasleak, irakasgaia amaitu ondoren, honoko lorpenak bereak izan beharko litzuzke: egungo eboluzio teoriaren egitura eta postulatuak ezagutu beharko litzuzke, bai eta hauek jokaeraen eboluzioarekiko eta bereziki gizakion eboluzio eta bere jokaeraren eboluzioarekiko daukaten garrantzi eta inplikazioak; jokaeraren eboluzioaren ikasketan esistitzen diren teoria eta eredu orokorrak ezagutu beharko litzuzke: Jokoen Teoria, Optimiazazio ereduak, ahaidegoarekiko hautespenaren eta inbertsio parentalaren teoriak adibidez; animalien jokararen ikasketaren alor ezberdinetako oinarritzko ezagutzak lortu beharko litzuzke: komunikazioa, jokaera soziala, ugalketa eta sexu jokaera, zaintza parentala, jokaera prosoziala eta jokaera agonistikoa. Alor hauen ikasketan erabiltzen diren hurbilketa proximal eta distalak erabiliaz lortutako ezagutzak integratzen jakin beharko luke.

Gainera, ikasleak etologian erabiltzen diren ikerketa metodoak ezagutu ditzan bermatu nahi genuke. Zentzu honetan, behaketa metodologiari buruzko ezagutzen lorpenak, ebaluazio psikologikoaren alorrean beharrezkoak diren gaitasunen lorpenari ekarpen aipagarri bat egin diezaioke. Gelako praktikak aldizkari zientifikoetako artikuluen azterketena oinarritzen dira, eta hala izanik, aldagai kontzeptua eta hauen deskripzio eta neurketa sistemak lantzen dituzte, bai eta ikaslea ikerketa diseinu ezberdinekin jartzen ere. Azkenik, praktiken ebaluaketarako egin beharko diren txostenen lantzeak, idatzizko informeen burutze gaitasuna bultzatzen laguntzen du ere.

GAITEGIA

1. ANIMALI JOKAERAREN IKASKETARI SARRERA.

- 1.1 Etologia: Kontzeptua
- 1.2 Aurrekoak Darwin arte.

- 1.3 Darwin eta hautespen naturalaren bidezko eboluzioa
- 1.4 Etologia Klasikoa eta Psikologia Alderatua
- 1.5 Animalia jokaeraren ikasketaren egungo garapenak
- 1.6 Etologia Psikologiako ikasketetan



2. EBOLUZIOAREN MEKANISMOAK

- 2.1 Eboluzioaren Teoria Sintetikoari sarrera
- 2.2. Populazioen anizkuntasun iturriak
- 2.3. Orekaren egonkortasuna
- 2.4. Aladaketa bultzatzen duten indar eta aldagaiak
- 2.5. Espeziazioa

3. HOMINIZAZIOAREN PROZESU BIOLOGIKOAK

- 3.1. Homo sapiens-aren leinu ebolutiboa
- 3.2. Hankabikotzea
- 3.3. Zefalizazioaren areagotzea
- 3.4. Hominizazio beste zenbait prozesu

4. JOKAERAREN EBOLUZIOA ETA FUNTZIOA

- 4.1. Jokaeraen filogenia
- 4.2. Funtzio eta eraginkortasun biologikoaren kontzeptuak
- 4.3. Joko Teoria eta estrategia ebolutiboki egonkorak (EEE)
- 4.4. Optimizazio Teoria

5. JOKAERAREN KONTROLA ETA ZERGAITIAK

- 5.1. Kausazioaren eta motibazioaren kontzeptuak etologian
- 5.2. Jokaeraren zergaiti zuzenen ikasketarako hurbilketak
- 5.3. Kausazioaren eredu klasikoak
- 5.4. Egungo kausazio ereduak

6. JOKAERAREN ONTOGENESIA

- 6.1. Kontzeptuen definizioa: funtzioen iraupena eta mekanismoen aldaketa, homeostasia eta garai sentikorak
- 6.2. Bizitza zikloaren zeharreko aldaketa motak: aldaketa fisiologikoak, aldaketa morfologikoak, aktibitate motorearen aldaketak, jokaera sistemetako aldaketak
- 6.3. Aldaketaren bultzatzaileak: geneak, heltze prozesua, ikaskuntza eta esperientzia
- 6.4. Inpronta, joko eta kantuen garapena hegaztiengan

7. ANIMALIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- 7.1. Komunikazioaren oinarrizko kontzeptuak eta definizioak
- 7.2. Saikapenak eta seinale motak
- 7.3. Transmisio motak eta seinale kanaleak
- 7.4. Seinaleen eboluzioa

8. SEXU ETA UGALKETA JOKAERA

- 8.1. Ugalketa sistemak
- 8.2. Sexuaren eboluzioa. Zertarako sexua?
- 8.3. Hautespen sexuala
- 8.4. Bikoteratze sistemak

9. KUMEEKIKO SENIDEGO-ZAINTZA

- 9.1. Inbertsio parentala
- 9.2. Zaintza parentalaren ekologia
- 9.3. Gatazka paterno-filiala



10. JOKAERA PROSOZIALA

- 10.1 Altruismoa eta laguntza jokaera ez altruistak
- 10.2 Altruismoaren eboluziorako hipotesiak
- 10.3 Ahaidegoaren bereizkuntza
- 10.4 Jokaera altruistak animalien, adibideak.

11. JOKAERA AGONISTIKOA

- 11.1 Izaera, kontzeptua eta sailkapena
- 11.2 Agresioaren azterketa funtzionala
- 11.3 Oinarri biologikoak
- 11.4 Garapenaren faktoreak

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- CARRANZA, J., ed. (1994) Etología. Introducción a la ciencia del comportamiento, Cáceres: Universidad de Extremadura. Servicio de Publicaciones.
- EIBL-EIBESFELDT, I. (1979) Etología. Introducción al estudio comparado del comportamiento. Barcelona: Omega.
- BOYD, R. Y SILK, J. B. (2001) Cómo evolucionaron los humanos. Barcelona: Ariel.
- MAIER, R. (2001) Comportamiento animal. Un enfoque evolutivo y ecológico, Madrid: McGraw-Hill.
- PELÁEZ DEL HIERRO, F., GIL BURMANN, C. y SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, S. (2002) Introducción a la etología. El estudio comparado del comportamiento animal., Madrid: Biblioteca Nueva.
- SLATER, P. J. B. (2000) El comportamiento animal. Madrid: Cambridge University Press.

EBALUAKETA

Lehenengo mailako irakasgaien ebaluaketa sistemak, irakasgai bakoitzeko lehen eskola egunean jakinaraziko zaizkie ikasleei. Era berean, ebaluaketa sistema bakoitza, dagokion irakasgaiaren gidan azalduko da ere. Edozein kasutan, beste ebaluaketa sistema baten bidez ebaluatuak izanda ere, euren eskubide izanik, ikasleak beti aurkeztu ahal izango dira azken azterketa batetara